

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko 2016ko zerga kobratzea

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odriak, Dulantziko (Araba) alkate lehendakariak,

Jakinarazten dut: 2016ko urriaren 15etik abenduaren 15era bitarteko egun baliodontan, biak barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko aldian, 2016ko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ordainagiriak.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea: 2016ko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Premiamendu aldia, ehuneko 5eko errekarguarekin, 2015eko abenduaren 15etik aurrera; egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazlea hasiko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Dirubilletaren Araudi Orokorrak.

Ordaintzeko lekua eta modua; bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpenean agertzen diren banku bulegoetan ordaindu ahal izango dute, borondatezko epean.

Dulantzi, 2016ko irailaren 28a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*